



Antxiñako fotografixia



IKASOLA KALIA

Orain **Aita Madina** moduan ezauketan dogun kale honek beste izen bat eukan fotografixa hau atara zanian: **Calle del Colegio** edo **Ikasola kalea** (sic). Baiña izendapen hau be etzan betikua, aurreko gizaldixetan inoiz **San Migel** kaliaren (Kale Zaharraren goiko partiairen) edota **San Anton** kaliaren luzapentzat hartu izan zan-eta.

Paraje honi 1886-1891 bittartian etorri xakon benetako aldaketia, urte horreetan obra haundixak egin ziralako. Onatira ailegau barri ziran agustiñuen konbentua eta elizia jasoteko, inguru haretan egozen beste etxe batzuk bota bihar izan zittuain. Dana dala, 1950 aldera beste lan batzuk be burutu ziran: laterandarren kolejixo aurreko **patixua** eta **hormia** batetik; eta **kanpantorriaren** goiko alde barrixa bestetik. Jatorrizko kanpantoria oso antzekua ei zan, baiña oiñaztu batek hondatu eta desmontau egin bihar izan euen gerria baiño lehenago.

Aurreko aldian ezkerretara agerketan dan hormia **Gerekaneko** ortukua zan eta ospitalaren ostian eguen. Gerotxuago **txokolat-fabrika** barrixa egin euen hortxe Gerekatarrak, baiña ez eben asko irau: 1968 inguruan, ospitala nahiz txokolat-fabrika bota eta harein lurretan gaur egun zutik dague Zuazola institutua jaso euen. Gaiñerako etxietan aldaketa askotarrik somau ez arren, nabarmen kanbixau dana kaliaren girua dogu: eztago ez, oraingo trafikorik ezta kotxe-motor pillarik apar-kauta. Ikusten dan bakarra zera dozue: **Illarramendiñeko** laberako enborrak espaloian, bizkletadun bat kamiñuan, kamioia piletako fabrika zaharraren **ikaztegi** parian eta suegurez betetako burdixa **Harrjiolleneko** etxe aurrian.

Emun dittugun datuok kontuan izanda, fotografixa hau 1950. urtia baiño gerotxuagokua dala uste dogu. Baiña urrin barik.

J. E.

Xabier Zelaiax itxitako argazkixa

OHARRA: Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituztu, zatozi

Arguaga

ARGAZKIAK

Kale Barria, 50
Faxa: 78 28 09 ONATI

BELAR Irrati-Telebista S.A.

Elektrizitate instalakuntzak

Atezain automatikoak

Elektratresnen salmenta eta konponketa

TB-HIFI

Olakua auzoa, 1-C. Tfnoa: 78 06 57